



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko apirilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko apirilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2024ko martxoaren 29a

Afitxatze eguna : 2024ko martxoaren 29a

10. ERABAKIA: %30eko AURRERAKIN BATEN EMATEA SAINT MICHEL ESKOLA PRIBATUARI 2024ko ESKOLARATZE FORFAITETIK (7.5 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio, Frantziako Hezkuntza Kodeko L.442-5 artikulua arabera, Ortzaize - Arrosa Herri-arteko Pedagogia Elkartearen (HPE/RPI) lurraldean diren kontratupeko ikasgelen funtzionamendu gastuak irakaskuntza publikoko eta maila bereko ikasgelen baldintza beretan kontuan hartzen direla.

Auzapezak proposatu du Saint Michel eskolarentzako eskolaratze forfaitaren %30eko aurrerakina ematen segitzea.

Aurrerakinaren kalkulatzeko, 2024ko eskolaratze forfaitaren aurreikuspena hartuko da kontuan, hots 2023koaren parekoa izan daitekeena.

Auzapezak biltzarkideei oroitarazi die zenbatekoak izan diren 2022-2023 ikasturtean Ortzaizeko eskola publikoaren funtzionamendu gastuak:

- 26 363,04 euro ama-eskolako 28 haurrentzat, hots 941,54 euro haur bakoitzeko, Ortzaizeko eskolan.

- 6 744,07 euro CP-CE1 mailetan diren 14,5 ikaslerentzat, hots 465,11 euro haur bakoitzeko, Ortzaizeko eskolan.

- 11 422,08 euro CE2 eta CM2 artean diren 33 ikaslerentzat, hots 346,1 euro haur bakoitzeko, Arrosako eskolan

Biltzarkideei jakinarazi die, Saint Michel eskola pribatuan 2023ko sartzean 13 ikasle Ortzaizekoak zirela, eta horien artean 3 ama-eskolan, 5 CP-CE1 mailetan, eta 5 CE2 eta CM2 mailen artean. Horiek horrela, aurrerakina honela kalkula daitekeela zehaztu du:

2 064.23 euroko aurrerakina, honela kalkulatua:

	Ama-eskolak	CP-CE1	CE2-CM2	OROTARA
2022-2023ko forfaiata	941.54 €	465.11 €	346.12 €	
Haur kopurua 2023/09/01ean	3	5	5	13
OROTARA	2 824.62 €	2 325.55 €	1 730.60 €	
%30eko aurrerakina	847.39 €	697.67 €	519.18 €	2 064.23 €

Eskola publikoko ikasle baten kostua x Ortzaizeko eskola pribatuko ikasle kopurua x %30

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberaturik,

- **ERABAKI DU**, aho batez, Saint Michel eskolari 2 064,23 euroko aurrerakina onartzea 2024 urtearentzat,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, gai horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 15

Balitzko boz kopurua : 15

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko apirilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/04/19an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/04/19an.